



(Azken eguneraketa: 2020/03/24)

ETXEKO GARBIKETA, ETXEKO ISOLAMENDUAN DAUDEN COVID-2019 KASUENTZAT

Gaixoaren logelaren garbiketa:

- Egunero garbitu gelako gainazal guztiak, hala nola mahaia, ateen tiradoreak, bainugelako osagarriak, komuna, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, *tablet*-ak, mugikorra, etab.
- Ahal bada, gaixoak egingo du, eta, bestela, zaintzen duen pertsonak.
- Garbiketa zaintzaileak egiten badu, erabili eta botatzeko eskularruak eta maskara jantziko ditu (eskuragarri baldin baditu).
- Desinfekzioa egiteko, erabili lixiba diluitua duen etxeko desinfektatzaile bat (% 5eko kontzentrazioa duen etxeko lixibaren parte bat, 49 ur-partetan). Diluzioa erabiliko den egun berean prestatu behar da. Lixiba erabili ezin den gainazaletan etanola erabiliko da % 70ean.
- Gaixoaren gela ondo aireztatuta mantendu, baina beti atea itxita.
- Gaixoa ospitalera eramaten badute, logela aireztatu ordubetez, atea itxita dagoela. Inor ez dadila sartu gela horretan azken garbiketa egin arte.

Gaixoaren arropa, oheko arropak, eskuoihalak:

- Ahal bada, gaixoak poltsa hermetiko batean jasoko du garbitu behar den arropa.
- Arropa zaintzaileak jasotzen badu, logela barruan egingo du, eta erabili eta botatzeko eskularruak eta maskara jantziko ditu (eskuragarri baldin baditu).
- Ez astindu arropa poltsatik ateratzean, eta sartu berehala garbigailuan. Kontuz ibili eta, ahal bada, hustu poltsa barruan.
- Eskuak garbitu eta garbigailua martxan jarri. Erabili ur beroko programa bat (60-90°C) eta zure ohiko detergentea.
- Gaixoaren arropak etxeko gainerako arroparengandik bereizita garbitu.

Pazientearen baxera:

- Ontzi-garbigailua izanez gero, familiako gainerakoekin garbitu daiteke, 50-60 gradutik gorako tenperaturan.
- Ontzi-garbigailurik ez baduzu, garbitu lehenik familiaren ontziteria, eta, azkenik, gaixoarena. Jarri ur berotan eta detergentearekin busti aurretik. Gero, ondo garbitu.

Gaixoaren hondakinak:

- Gaixoaren hondakinak, hark erabilitako erabili eta botatzeko materiala barne (eskularruak, zapiak, maskarak), plastikozko poltsa batean (1. POLTSA) ezabatu behar dira, gelan jarritako zabor-ontzi batean (ahal izanez gero, tapa eta irekitzeko pedala duena). Ez da birziklatzeko inolako bereizketarik egingo.
- Plastikozko poltsa (1. POLTSA) behar bezala itxi behar da, eta bigarren zabor-poltsa batean sartu (2. POLTSA), gelaren irteeraren ondoan. Bertara, gainera, zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara botako dira, eta logelatik irten aurretik behar bezala itxiko da.
- 2. POLTSA, 3. POLTSA batean sartuko da, etxeko gainerako hondakinekin batera. 3. POLTSA ere behar bezala itxiko da.
- Ondoren, eta berehala, eskuen higieena egingo da, urarekin eta xaboiarekin, gutxienez 40-60 segundotan.
- 3. POLTSA errefuxara botako da. Erabat debekatuta dago bereizita biltzeko edukiontzietara botatzea (organikoa, ontziak, papera, beira edo ehuna) edo inguruan uztea.

Gainerako etxebizitzaren garbiketa eta desinfekzioa

- Egunero garbitu libxibarekin maiz ukitzen diren gainazal guztiak, hala nola mahaia, ateen tiradoreak, bainugelako osagarriak, komuna, telefonoa, ordenagailuen teklatuak, *tablet*-ak, etab. Horretarako, egunean bertan prestatutako disoluzioa erabiliko da: % 5eko kontzentrazioa duen etxeko libxibaren parte bat, 49 ur-partetan.
- Etxebizitza osoa egunero ondo aireztatzen dela ziurtatu.

1. irudia. Eskuen higieena

